

ZUGATZ MOZTUAK

Mozte-aldia jorik urte-gurpillean,
zatar dozuez soiñak, bil-uts eta goibel.
Begira or, asmo txar, Udalak esanda,
iru gizon serrari, oraintxe dira el.

Bas-eleiz inguruko areitz zat, azkazi
eta beste tantaiaak iñauñera zatoz.
Negar areitz urtetsu, negar bai zotinka!
erakuts barne-miña adar-puntak malkoz!

Lau astez ona barik, gaur emen nozue.
Oi, errukarri zuek! Zarpail, odolotan;
txit murriztu zaituez, ostoge zagoze,
leen eder ziñienok gaur alkez ziñetan!

Moztuak zakustaze, zauriz ta narru loj,
Zuok merezi eta olako laidorik?
Zaarrak egiaz, baiña ederrak zintzazen.
Zergaitik, oil, zaituez orren itxusirik?

Azpian kukurio, negar dagitzuet,
giza-zitalkeria bizi gaitzetsiaz;
maiatza dalarik ez dager or kimetzik,
txoririk ez egunez, ezta ontzik gauez.

Ai ene!, baltz dirudit gaur zuen zoria;
iñori ete mindu ene lor-bertsuok?
Alan eta guzti be, zakiez pozbide
zartzaro soil-betean iñausi zugatzok!

Igotz